# ARAUDI OFIZIALA

## KIROL ESKOLA




BSF
FVB

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

1941
2016

## DENBORALDIA 19/20

# ARAUDIEN ARTEKO PROGRESIOA

| ARAUDI | PREMINIBASKETA | | MINIBASKETA | PASARELA | | SASKIBALOIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3X3 | 5X5 | 5X5 | INFANTIL | INFANTIL RENDIMIENTO | KADETE JUNIOR |
| Joko denbora | 4 zati 10 minutu | 6 zati 8 minutu | 6 zati 8 minutu | 4 zati 10 minutu | 4 zati 10 minutu | 4 zati 10 minutu |
| Baloia | Gustiek Baden eskolar B-5 | Gustiek Baden eskolar B-5 | Gustiek Baden eskolar B-5 | Baden eskolar Giz. B-7 Emak.. eta Mixtoa B-6 | Baden eskolar Giz. B-7 Emak. eta Mixtoa B-6 | Baden eskolar Giz. B-7 Emak. eta Mixtoa B-6 |
| 8'' eta 24'' | EZ | EZ | EZ | BAI | BAI | BAI |
| Zona 3'' | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| 4 faltas Zati bakoitzeko | 2 jaurtiketa libre | 2 jaurtiketa libre | 2 jaurtiketa libre | 2 jaurtiketa libre | 2 jaurtiketa libre | 2 jaurtiketa libre |
| Hirukoa | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| Defentsa | Banakoa | Banakoa zelai Erdi edo osokoa | Banakoa zelai Erdi edo osokoa | Banakoa zelai Erdi edo osokoa | Defentsa mota guztiak | Defentsa mota guztiak |
| Aktan inskribaturiko jokalariak | Guztiek Jokatzen dute | Guztiek Jokatzen dute | Guztiek Jokatzen dute | Guztiek Jokatzen dute | Guztiek Jokatzen dute | Guztiek EZ dute Jokatzen |

# AURKIBIDEA

Orrialdea

Sarrera........ 3

Kadete eta Juniorrak........ 5

Errendimentua-Haur Maila........ 7

Haur Maila-Partehartzea........ 11

Minibasket eta Preminibasket 5x5........ 15

3x3 Arautegia........ 19

Preminibasket Arautegia 3x3 eta 5x5 modalitateetanparte hartzen duten taldeentzat........ 24

Eskola Laguntzaileak........ 25

Partiduen aktak........ 25

Arbitroen keinuak / Eskola Laguntzaileak........ 31

Jokatzeko zelaiak

- -Saskibaloia........ 39
- -Minibasket........ 42

## SARRERA

Eskola kirola saskibaloian hasteko balio duen esperientzia bakar eta aberasgarria dugu, kirol hori denbora luzez lotuta egoteko abiapuntua. Parte-hartzailearen garapen fisiko, intelektual, sozial eta emoziozkoan eragin zuzena izaten du, hezkuntza oinarri sendoetan oinarrituz.

Garrantzitsua da kirolariak lehiaketa esperientzia jasotzea, bere norbanako beharrizanak errespetatuz. Edozein joko burutzerako orduan lehiatzeak erakargarritasun puntu garrantzitsu bat du, baina irabaztea ez litzateke helburu nagusia izan beharko. Kirolari bakoitzak bere joko maila eta trebetasuna hobetzean egin beharko litzateke lan.

Eskola Kirolak laguntasuna, ondo pasatzea, kiroltasuna eta gainontzeko parte-hartzaileekiko (beste taldea, Eskola Laguntzailea,mahaiko kideak eta familiak) errespetua bultzatzen ditu.

Eskola Kiroleko taldeak zuzentzeko kide guztiek joko honen espiritua, oinarriak ezagutu, ulertu eta errespetatu beharko ditu. Bere konpetentzia taldeekin egingo duen lanean garatzeko konpromisoa hartu beharko du.

Eskola Kirolean taldeak zuzentzeak erantzukizun handia suposatzen du, baina baita dibertsio eta asetasun pertsonal bat. Esfortzuan eta taldeko espirituan egiten den lana azpimarratu behar da, diziplina, justizia zentsua eta kirol portaera bultzatuz.

Federazioari, ikastetxe eta klubei kiroltasuna eta jokabide egokiak sustatzeko esfortzua egitea eskatzen zaie. Eskola

Kirolean parte hartzen duten pertsona guztiak, kirolaren praktika orokorrean, eta gure kasuan saskibaloi praktikan, esperientzia positibo eta behar bezalakoa izatea lortzeko, agente aktiboak izan behar dira.

OHARRA

Arautegi honen barruan ez dauden auzi guztientzako ondorengok hartuko dira kontuan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Ekainaren 11ko 14/1998 LEGEA.

b) Eskola Kirolari buruzko Uztailaren 1eko 125/2008 DEKRETUA.

c) Eskola Kiroleko lehiaketen diziplina erregimenaren gaineko Uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA.

d) Euskadiko Saskibaloi Federazioko Arautegiak dioena.

e) Bizkaiko Saskibaloi Federazioko Arautegiak dioena.

Euskarazko eta Gaztelerazko arautegien interpretatzean gatazkaren bat izanez gero, jatorrizko bertsioan dagoena nagusituko da.

## KADETE ETA JUNIORRAK

1. FEB-k editatutako eta FIBA-k onartutako Joko Arautegia ezarriko da, azken honi Arau hauek gehitu zaizkie, gatazka sortu dezaketen gainontzekoen gainean nagusituko direlarik, bere ezarpenak sor ditzakeen ondorioak edozein direlarik ere.

2. Taldeek dagokien eskola lizentziak aurkeztu beharko dituzte. Horrela egingo ez balute, NAN edo Pasaporte originala aurkeztuko lukete. Betekizun hau ezinbestekoa izango da aktan izena emateko eta gertaera hau gertatuko balitz, dagokion txostena beteko da.

3. Eskola laguntzaile batek edo bik arau hauek jarraituz partidua zuzenduko dute. Falta eta bortxaketak seinaleztatzearen, jokoan eta jaurtiketa libreetan lorturiko saskiratzeak emateko edo baliogabetzeko eta Arautegian datozen penalizazioak kudeatzeko erantzule izango dira. Arbitrajea talde bakoitzeko eskola laguntzaileek burutu ahalko dute, elkarrekin arituz partidu osoan. Talde batek beste taldeko eskola bakarra onartzen duenean, partidu osoan arbitrajea errespetatu beharko du. Baimen horrek ez du esan nahi itzulerako partidua soilik beste taldeko arbitroak arbitratu beharko duenik. Partiduaren garapen egokia errazteko , etxeko taldeak kronometratzaile eta mahaiko laguntzaile lanak burutzeko pertsonak izan beharko ditu, funtzio hori talde bisitariaren Eskola laguntzaile batekin elkarbanatu ahalko delarik.

4. Eskola Kiroleko aktak erabiliko dira eta etxeko taldea edo bere eskola laguntzailea izango dira Federaziora

bidaltzearen arduradunak. Talde garaileak edo eskola laguntzaileak emaitza jakinarazi beharko dio Federazioari.

5. Talde bakoitzak 8 eta 17 kirolari izan ahalko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren erlazioan. Partiduetan, aktan izena emanda egongo diren gutxieneko kirolari kopurua 5ekoa izango da eta gehienez 15ekoa.

6. Partidua jokatzeko gutxienez talde bakoitzeko 5 kirolari aurkeztu beharko dira.

7. 8 eta 24 segundoko arauak aplikatuko dira.

8. Bizkaiko Federazioko baloi ofiziala erabiliko da, Kautxuzko Baden 400 7.zbk gizonezkoek eta Kautxuzko Baden 415 6.zbk emakume eta mistoek.

9. Partidua, kronometroa duen pertsona arduradunak jokoaren denboraren amaiera adierazteko seinala jotzen duenean bukatuko da. Baina talderen batek 50 puntu aurretik jartzea lortuko balu, partiduak aurrera egingo du baina aktan, talde biek lorturiko puntuak apuntatzeari utziko zaio, faltak, hutsarteak eta partiduan parte hartzen duten jokalariak apuntatzen jarraituko direlarik.

   Akta ixterako orduan, 50 puntuko aldea lortzerakoan emandako emaitza adieraziko da.

## ERRENDIMENDUA-HAUR MAILA

1. FEB-k editatutako eta FIBA-k onartutako Joko Arautegia ezarriko da, azken honi Arau hauek gehitu zaizkie, gatazka sortu dezaketen gainontzekoen gainean nagusituko direlarik, bere ezarpenak sor ditzakeen ondorioak edozein direlarik ere.

2. Taldeek dagokien eskola lizentziak aurkeztu beharko dituzte. Horrela egingo ez balute, NAN edo Pasaporte originala aurkeztuko lukete. Betekizun hau ezinbestekoa izango da aktan izena emateko eta gertaera hau gertatuko balitz, dagokion txostena beteko da.

3. Eskola Kiroleko aktak erabiliko dira eta arbitro nagusia Federaziora bidaltzeaz arduratuko da.

4. Arbitro nagusiak, orain arte gainontzeko lehiaketa federatuetan egin bezala,app-a erabiliz emaitzaren berri ematearen arduraduna izango da.

5. Partiduak 10 minutuko (erloju geldia ) 4 zati izango ditu.

6. Arbitroek ez dute ateko eta hegaleko sakeetan baloirik ukituko, falta, aldaketa edo hutsarteetan izan ezik. Sakean arau hausteren bat eginez gero, jakinarazi egingo da eta ostean errepikatuko balitz, dagokion zigorra ezarriko zaio.

7. Talde bakoitzak 8 eta 17 kirolari izan ahalko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren erlazioan. Partiduetan, aktan izena emanda egongo diren gutxieneko kirolari kopurua 8koa izango da eta gehienez 15ekoa.

8. Partidua jokatzeko gutxienez talde bakoitzeko 8 kirolari aurkeztu beharko dira.

a. Talde batek ez baditu gutxieneko 8 kirolari aurkezte, partidua berdin berdin jokatuko da eta emaitza baliogarritzat emateko adostasuna dagoen ala ez adierazten duen txostena burutuko da. Txosten hau partiduaren hasiera aurretik egingo da, eta bertan adierazitakoa errespetatu egin beharko da.

b. Akordiorik ezean, gutxieneko 8 kirolariak aurkezten ez dituen taldeak partidua irabaziko balu, emaitza 2-0ekoa izango litzateke, araua bete duenaren alde. Arau haustea burutzen duen taldeak partidua galduko balu, bertan ematen den emaitza ontzat emango da, gorabehera hori aktan adieraziz.

9. Kirolari bakoitzak gutxienez laurden oso bat eta gehienez bi laurden oso jokatuko ditu lehendabiziko hiru laurdenetan.

a. Lesio bat egongo balitz, 5 falta edo deskalifikatzailea, arau hau hausten ez duten kirolariek parte hartu beharko lukete.

b. Lesioa baten erruz laurden bat bukatzen ez duen kirolariak, laurden osoa jokatu duela ulertuko da.

c. Lehen hiru laurdenetatik batean aulkian egon beharko du kirolari bakoitzak, laurden osoa, laurdena hasi eta berau bukatu arte ulertuko delarik, inolako salbuespenik gabe. Lesioa jasan, deskalifikatu edo faltengatik kanporatua izan dena ordezkatzen duen kirolariari, jokatutako laurdena osotzat hartuko da, laurden oso bat aulkian izan ez dela ulertuko delarik.

d. Salbuespen bezala, eta azken aukera bezala, jokalari batek lehen hiru laurdenetan parte hartzeko aukera

izango du, taldeak 5 jokalarirekin jokatzen duela bermatzeko.

10. Arau bezala, aldaketak soilik azken laurdenean burutu ahalko dira

11. 8 eta 24 segundoko arauak aplikatuko dira.

12. Erregistraturiko hutsartea entrenatzaileak edo entrenatzaile laguntzailek eskatzen duen hutsartea izango da. Hutsarte bakoitzak minutu 1eko iraupena izango du. Lehen zatian 2 hutsarte eman ahal zaizkio talde bakoitzari (1. eta 2. laurdenetan). Hutsarte hauek laurden berdinean edo ezberdinetan eskatu ahalko dira. Bigarren zatian (3. eta 4. laurdenetan) 3 hutsarte eman ahalko zaizkie. Luzapenean hutsarte bakarra izango du talde bakoitzak.

1. Eta 2. Laurdenetan erabili gabeko hutsarteak ezingo dira 3. Eta 4. Laurdenetako hutsarteei gehitu.

13. Edozein defentsa mota erabili daiteke, ez dago inolako murriztapenik.

14. Talde bat, faltengatiko zigor egoeran izango da laurden batean 4 falta bete dituenean.

15. Bizkaiko Federazioko baloi ofiziala erabiliko da, Kautxuzko Baden 400 7.zbk gizonezkoek eta Kautxuzko Baden 415 6.zbk emakume eta mistoek.

16. Partidua, kronometroa duen pertsona arduradunak jokoaren denboraren amaiera adierazteko seinala jotzen duenean

bukatuko da. Baina talderen batek 50 puntu aurretik jartzea lortuko balu, partiduak aurrera egingo du baina aktan, talde biek lorturiko puntuak apuntatzeari utziko zaio, faltak, hutsarteak eta partiduan parte hartzen duten jokalariak apuntatzen jarraituko direlarik.

Akta ixterako orduan, 50 puntuko aldea lortzerakoan emandako emaitza adieraziko da.

# HAUR MAILA-PARTEHARTZEA

1. FEB-k editatutako eta FIBA-k onartutako Joko Arautegia ezarriko da, azken honi Arau hauek gehitu zaizkie, gatazka sortu dezaketen gainontzekoen gainean nagusituko direlarik, bere ezarpenak sor ditzakeen ondorioak edozein direlarik ere.

2. Taldeek dagokien eskola lizentziak aurkeztu beharko dituzte. Horrela egingo ez balute, NAN edo Pasaporte originala aurkeztuko lukete. Betekizun hau ezinbestekoa izango da aktan izena emateko eta gertaera hau gertatuko balitz, dagokion txostena beteko da.

3. Eskola laguntzaile batek edo bik arau hauek jarraituz partidua zuzenduko dute. Falta eta bortxaketak seinaleztatzearen, jokoan eta jaurtiketa libreetan lorturiko saskiratzeak emateko edo baliogabetzeko eta Arautegian datozen penalizazioak kudeatzeko erantzule izango dira. Arbitrajea talde bakoitzeko eskola laguntzaileek burutu ahalko dute, elkarrekin arituz partidu osoan. Talde batek beste taldeko eskola bakarra onartzen duenean, partidu osoan arbitrajea errespetatu beharko du. Baimen horrek ez du esan nahi itzulerako partidua soilik beste taldeko arbitroak arbitratu beharko duenik. Partiduaren garapen egokia errazteko , etxeko taldeak kronometratzaile eta mahaiko laguntzaile lanak burutzeko pertsonak izan beharko ditu, funtzio hori talde bisitariaren Eskola laguntzaile batekin elkarbanatu ahalko delarik.

4. Eskola Kiroleko aktak erabiliko dira eta etxeko taldea edo bere eskola laguntzailea izango dira Federaziora bidaltzearen arduradunak. Talde garaileak edo eskola laguntzaileak emaitza jakinarazi beharko dio Federazioari.

5. Partiduak 10 minutuko (erloju geldia ) 4 zati izango ditu.

6. Arbitroek ez dute ateko eta hegaleko sakeetan baloirik ukituko, falta, aldaketa edo hutsarteetan izan ezik. Sakean arau hausteren bat eginez gero, jakinarazi egingo da eta ostean errepikatuko balitz, dagokion zigorra ezarriko zaio.

7. Talde bakoitzak 8 eta 17 kirolari izan ahalko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren erlazioan. Partiduetan, aktan izena emanda egongo diren gutxieneko kirolari kopurua 8koa izango da eta gehienez 15ekoa.

8. Partidua jokatzeko gutxienez talde bakoitzeko 8 kirolari aurkeztu beharko dira.

   a. Talde batek ez baditu gutxieneko 8 kirolari aurkezten, partidua berdin berdin jokatuko da eta emaitza baliogarritzat emateko adostasuna dagoen ala ez adierazten duen txostena burutuko da. Txosten hau partiduaren hasiera aurretik egingo da, eta bertan adierazitakoa errespetatu egin beharko da.

   b. Akordiorik ezean, gutxieneko 8 kirolariak aurkezten ez dituen taldeak partidua irabaziko balu, emaitza 2-0ekoa izango litzateke, araua bete duenaren alde. Arau haustea burutzen duen taldeak partidua galduko balu, bertan ematen den emaitza ontzat emango da, gorabehera hori aktan adieraziz.

9. Kirolari bakoitzak gutxienez laurden oso bat eta gehienez bi laurden oso jokatuko ditu lehendabiziko hiru laurdenetan.

   a. Lesio bat egongo balitz, 5 falta edo deskalifikatzailea, arau hau hausten ez duten kirolariek parte hartu beharko lukete.

b. Lesio baten erruz laurden bat bukatzen ez duen kirolariak, laurden osoa jokatu duela ulertuko da.

c. Lehen hiru laurdenetatik batean aulkian egon beharko du kirolari bakoitzak, laurden osoa, laurdena hasi eta berau bukatu arte ulertuko delarik, inolako salbuespenik gabe. Lesioa jasan, deskalifikatu edo faltengatik kanporatua izan dena ordezkatzen duen kirolariari, jokatutako laurdena osotzat hartuko da, laurden oso bat aulkian izan ez dela ulertuko delarik.

d. Salbuespen bezala, eta azken aukera bezala, jokalari batek lehen hiru laurdenetan parte hartzeko aukera izango du, taldeak 5 jokalaririkin jokatzen duela bermatzeko.

10. Arau bezala, aldaketak soilik azken laurdenean burutu ahalko dira.

11. 8 eta 24 segundoko arauak aplikatuko dira.

12. Erregistraturiko hutsartea entrenatzaileak edo entrenatzaile laguntzailek eskatzen duen hutsartea izango da. Hutsarte bakoitzak minutu 1eko iraupena izango du. Lehen zatian 2 hutsarte eman ahal zaizkio talde bakoitzari (1. Eta 2. Laurdenetan). Hutsarte hauek laurden berdinean edo ezberdinetan eskatu ahalko dira. Bigarren zatian (3. Eta 4.laurdenetan) 3 hutsarte eman ahalko zaizkie. Luzapenean hutsarte bakarra izango du talde bakoitzak. 1. Eta 2. Laurdenetan erabili gabeko hutsarteak ezingo dira 3. Eta 4. Laurdenetako hutsarteei gehitu.

13. Defentsak banakakoak izan beharko dira, defentsa zelai erdi edo osoan, ez direlarik eremuko defentsak onartuko. Honengatik ohartarazten bada, araua hautsi dien entre-

natzaileari jakinaraziko zaio eta errepikatuz gero, falta teknika batekin zigortuko zaio (B mota).

14. Defentsa laguntzak, defentsa aldaketak eta entzierro bikoitzak, banakako defentsa mota ezberdinen oinarrizko aldaerak dira.

15. Alboko eta ateko sakeetan, ez dago baimenduta sakea burutzen duen pertsonaren defendatzaileak, defentsa bikoitza egitea jasotzaile baten gainean.

16. Talde bat, faltengatiko zigor egoeran izango da laurden batean 4 falta bete dituenean.

17. Bizkaiko Federazioko baloi ofiziala erabiliko da, Kautxuzko Baden 400 7.zbk gizonezkoek eta Kautxuzko Baden 415 6.zbk emakume eta mistoek.

18. Partidua, kronometroa duen pertsona arduradunak jokoaren denboraren amaiera adierazteko seinala jotzen duenean bukatuko da. Baina talderen batek 50 puntu aurretik jartzea lortuko balu, partiduak aurrera egingo du baina aktan, talde biek lorturiko puntuak apuntatzeari utziko zaio, faltak, hutsarteak eta partiduan parte hartzen duten jokalariak apuntatzen jarraituko direlarik.

Akta ixterako orduan, 50 puntuko aldea lortzerakoan emandako emaitza adieraziko da.

# MINIBASKET eta PREMINIBASKET (5x5)

1. FEB-k editatutako eta FIBA-k onartutako Joko Arautegia ezarriko da, azken honi Arau hauek gehitu zaizkie, gatazka sortu dezaketen gainontzekoen gainean nagusituko direlarik, bere ezarpenak sor ditzakeen ondorioak edozein direlarik ere.

2. Taldeek dagokien eskola lizentziak aurkeztu beharko dituzte. Horrela egingo ez balute, NAN edo Pasaporte originala aurkeztuko lukete. Betekizun hau ezinbestekoa izango da aktan izena emateko eta gertaera hau gertatuko balitz, dagokion txostena beteko da.

3. ESKOLA LAGUNTZAILEA.- Eskola laguntzaile batek edo bik arau hauek jarraituz partidua zuzenduko dute. Falta eta bortxaketak seinaleztatzearen, jokoan eta jaurtiketa libreetan lorturiko saskiratzeak emateko edo baliogabetzeko eta Arautegian datozen penalizazioak kudeatzeko erantzule izango dira. Arbitrajea talde bakoitzeko eskola laguntzaileek burutu ahalko dute, elkarrekin arituz partidu osoan. Talde batek beste taldeko eskola bakarra onartzen duenean, partidu osoan arbitrajea errespetatu beharko du. Baimen horrek ez du esan nahi itzulerako partidua soilik beste taldeko arbitroak arbitratu beharko duenik. Partiduaren garapen egokia errazteko , etxeko taldeak kronometratzaile eta mahaiko laguntzaile lanak burutzeko pertsonak izan beharko ditu, funtzio hori talde bisitariaren Eskola laguntzaile batekin elkarbanatu ahalko delarik.

4. Eskola Kiroleko aktak erabiliko dira eta etxeko taldea edo bere eskola laguntzailea izango dira Federaziora bidaltzearen arduradunak. Talde garaileak edo eskola laguntzaileak emaitza jakinarazi beharko dio Federazioari.

5. Partiduak 8 minutuko (erlojua gelditu gabe) 6 zati izango ditu. 6 zati hauen arteko atsedenaldiak, prorrogak bare, minutu batekoak izango dira, hirugarren eta laugarrenaren artean izan ezik, kasu honetan 5 minutukoa izango delarik.

6. Denbora hurrengo kasuetan baino ez da geratuko:
   a. Hutsartea

b. Jaurtiketa librea sortzen duen falta.

c. Baloiak joko zelaiaren mugak gainditzen baditu eta horri dagokion sakea berehala atera ezin dela argi dagoenean.

d. Jokalari baten aldaketa.

e. Partehartzaile baten lesioarengatik jokoa geratzea.

7. Arbitroek ez dute ateko eta hegaleko sakeetan baloirik ukituko, falta, aldaketa edo hutsarteetan izan ezik. Sakean arau hausteren bat eginez gero, jakinarazi egingo da eta ostean errepikatuko balitz, dagokion zigorra ezarriko zaio.

8. Talde bakoitzak 8 eta 17 kirolari izan ahalko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren erlazioan. Partiduetan, aktan izena emanda egongo diren gutxieneko kirolari kopurua 8koa izango da eta gehienez 15ekoa.

9. Partidua jokatzeko gutxienez talde bakoitzeko 8 kirolari aurkeztu beharko dira.

a. Talde batek ez baditu gutxieneko 8 kirolari aurkezte, partidua berdin berdin jokatuko da eta emaitza baliogarritzat emateko adostasuna dagoen ala ez adierazten duen txostena burutuko da. Txosten hau partiduaren hasiera aurretik egingo da, eta bertan adierazitakoa errespetatu egin beharko da.

b. Akordiorik ezean, gutxieneko 8 kirolariak aurkezten ez dituen taldeak partidua irabaziko balu, emaitza 2-0ekoa izango litzateke, araua bete duenaren alde. Arau haustea burutzen duen taldeak partidua galduko balu, bertan ematen den emaitza ontzat emango da, gorabehera hori aktan adieraziz.

10. HASIERAKOA.

a. Kirolari bakoitzak gutxienez zati oso bat eta gehienez bi zati oso jokatuko ditu lehendabiziko bost zatietan. Zati osoa, zatia hasi eta bukatu artekoa dela ulertzen da. 13,14 edo 15 jokalari izanez gero, denek bi zati oso jokatu beharko dituzte partidu osoan.

b. Aktan izena emanda daudenek, ezin dute inolaz ere, bi zati baino gehiago segidan jokatu lehendabiziko bost zatietan.

c. Jokalari bakoitzak bi zati oso aulkian igaro beharko ditu lehendabiziko bost zatietan. 8 kirolari baino ez dauden kasuetan, jokalari batek soilik zati batean artukodu atseden.

d. Lehendabiziko 5 zatietan ezingo da aldaketarik burutu, hurrengo kasuetan salbu. Lesioa jasan, deskalifikatu edo 5 falta gertatzen denean, arau hau hausten ez duten kirolariek parte artu beharko dute.

e. Lesio bat dela eta, jokalari batek zati bat bukatzen ez duenean, zati oso bat jokatu duela ulertuko da.

f. Lesionatua, deskalifikatua edo faltengatik kanporatua izan den jokalariari, jokatutako zatia, zati osotzat hartuko zaio.

g. Salbuespen bezala, eta azkeneko aukera izanik, jokalari batek lehn hiru ztaietan parte hartzeko aukera izango du, horrela partidua 5 kirolarirekin jokatzea bermatzeko. Eskola Laguntzaileak aktan honen berri eman beharko du.

11. ALDAKETAK

a. Arau bezala, soilik seigarren zatian edo beste aparteko zati batean aldaketak egin ahalko dira, beti ere erlojua geldi dagoen tartean. Seigarren zatiko azken bi minutuetan eta aparteko edozein zatiko azken bi minutuetan, saskiratzeen ondoren aldaketak eman ahal dira, saskiratzea jaso duten taldeei.

b. Eskola Laguntzaileak aldaketa baimentzen duen unean, erlojua geratu egingo da.

c. Seigarren zatian edo aparteko edozein tartetan aladaketak egin ahalko dira hutsarte batean. Sarturiko azken jaurtiketa librean edo jaurtiketa libre bakarrean, aldaketa eman ahalko zaio edozein jokalariri beti ere sakea burutuko duen jokalariak baloia izan aurretik eskatu badu.

12. Seigarren zatia bukatzerakoan emaitza berdinketakoa bada, berdinketa bukatzeko beharrezkoak diren behar bezain beste aparte-

ko zati jokatu beharko dira, hauen iraupena 5 minitukoak izango direlarik. Luzapenen akzen bi minutuak erlojua geldirik jokatuko dira.

13. Defentsak banakakoak izan beharko dira, defentsa zelai erdi edo osoan, ez direlarik eremuko defentsak onartuko. Honengatik ohartarazten bada, araua hautsi dien entrenatzaileari jakinaraziko zaio eta errepikatuz gero, falta teknika batekin zigortuko zaio (B mota).

    a. Defentsa laguntzak, defentsa aldaketak eta entzierro bikoitzak, banakako defentsa mota ezberdinen oinarrizko aldaerak dira.

    b. Alboko eta ateko sakeetan, ez dago baimenduta sakea burutzen duen pertsonaren defendatzaileak, defentsa bikoitza egitea jasotzaile baten gainean.

14. Talde bat, faltengatiko zigor egoeran izango da laurden batean 4 falta bete dituenean.

15. Erregistratutako hutsartea, entrenatzaileak eskaturiko partiduaren etenaldia da. Hutsarte bakoitzak minutu 1eko iraupena izango du. Lehen zatian 2 hutsarte eman ahal zaizkio talde bakoitzari (1., 2. eta 3. Laurdenetan). Hutsarte hauek laurden berdinean edo ezberdinetan eskatu ahalko dira. Bigarren zatian (3., 4. eta 5.laurdenetan) 3 hutsarte eman ahalko zaizkie. Hutsarte hauek 4.,5. Edo 6. Laurdenean eskatu ahalko dira. Luzapenean hutsarte bakarra izango du talde bakoitzak. Lehen zatian erabili gabeko hutsarteak ezingo dira 4.,5. eta 6. Laurdenetako hutsarteei gehitu.

16. Bizkaiko Federazioko baloi ofiziala erabiliko da, Kautxuzko Baden 410 5.zbk emakume eta gizonezkoentzat.

17. Partidua, kronometroa duen pertsona arduradunak jokoaren denboraren amaiera adierazteko seinala jotzen duenean bukatuko da. Baina talderen batek 50 puntu aurretik jartzea lortuko balu, partiduak aurrera egingo du baina aktan, talde biek lorturiko puntuak apuntatzeari utziko zaio, faltak, hutsarteak eta partiduan parte hartzen duten jokalariak apuntatzen jarraituko direlarik. Akta ixterako orduan, 50 puntuko aldea lortzerakoan emandako emaitza adieraziko da.

# 3X3 ARAUTEGIA

1. FEB-k editatutako eta FIBA-k onartutako Joko Arautegia ezarriko da, azken honi Arau hauek gehitu zaizkie, gatazka sortu dezaketen gainontzekoen gainean nagusituko direlarik, bere ezarpenak sor ditzakeen ondorioak edozein direlarik ere. Arautegi baten ere ageri ez diren egoeraren bat emango balitz, Federazioko Zuzendaritza Teknikoak, Bizkaiko Federazioko Zuzendaritza Batzordeari, honen gaineko neurriak hartzea proposatuko dizkio.

2. Taldeek dagokien eskola lizentziak aurkeztu beharko dituzte. Horrela egingo ez balute, NAN edo Pasaporte originala aurkeztuko lukete. Betekizun hau ezinbestekoa izango da aktan izena emateko eta gertaera hau gertatuko balitz, dagokion txostena beteko da. Talde honek gehienez jokatzeko gai diren 7 jokalari eta gutxienez 4 jokalari inskribatu ahalko ditu.

3. Eskola laguntzaile batek edo bik arau hauek jarraituz partidua zuzenduko dute. Falta eta bortxaketak seinaleztatzearen, jokoan eta jaurtiketa libreetan lorturiko saskiratzeak emateko edo baliogabetzeko eta Arautegian datozen penalizazioak kudeatzeko erantzule izango dira. Arbitrajea talde bakoitzeko eskola laguntzaileek burutu ahalko dute, elkarrekin arituz partidu osoan. Talde batek beste taldeko eskola bakarra onartzen duenean, partidu osoan arbitrajea errespetatu beharko du. Baimen horrek ez du esan nahi itzulerako partidua soilik beste taldeko arbitroak arbitratu beharko duenik. Partiduaren garapen egokia errazteko , etxeko taldeak kronometratzaile eta mahaiko laguntzaile lanak burutzeko pertsonak izan beharko ditu, funtzio hori talde bisitariaren Eskola laguntzaile batekin elkarbanatu ahalko delarik.

4. Eskola Kiroleko aktak erabiliko dira eta etxeko taldea edo bere eskola laguntzailea izango dira Federaziora bidaltzearen arduradunak. Talde garaileak edo eskola laguntzaileak emaitza jakinarazi beharko dio Federazioari.

5. 3x3 Jokatzeko JOKO ZELAIA eremu errektungalarra, laua eta gogorra izan beharko da, inolako oztopo gabe (minibasketeko arauzko zelaiaren pista erdia). Saskia Euskadiko Saskibaloi Federazioko Minibasket arautegiak adierazten duena izango da eta 2,60 metroko altueran kokatuko da. Gainontzeko neurriak Euskadiko Saskibaloi Federazioaren Arautegiak adierazten dituenak izango dira.

6. Bizkaiko Federazioko BALOI OFIZIALA erabiliko da, Kautxuzko Baden 410 5.zbk emakume eta gizonezkoentzat.

7. Talde bakoitzaren AULKIAK saskiaren aurrean izango dira (zelai erdiko marra erabiliz edo honi paraleloa den bat), Saskiratzaile mahaiaren aldamenean, bakoitza alde batean.

8. Talde bakoitzeko jokalari gzutiek kolore berdineko kamiseta eramango dute, identifikatuko dieten zenbakiekin. ESF-ko lehiaketetan baimenduta dauden zenbakiak 0tik 00ra eta 1etik 99ra dira. Koloreak berdinak izanez gero, kanpoko taldeak kamiseta aldatu beharko du.

9. Talde biek partidua hasi aurretik aldi berean beroketa lanak bururtzeko eskubidea izango dute zelaian. Partidua hasteko 3 jokalari egon beharko dira zelaian jokatzeko prest. Partidua biren arteko jauziarekin hasiko da, jaurtiketa librea zapalduz eta bakoitza eskola laguntzailearen alde batean egonez.

10.Baloi bat atxikirik dagoen bakoitzean edo "borroka" egoeretan, baloia txandaketa gezia seinalatzen duen taldeari egokituko zaio. 3x3 zelaiaren ezaugarriak kontuan hartuz, geziak dagokion taldearen aulkiari seinalatuko dio.

11. Arbitroek ez dute ateko eta hegaleko sakeetan baloirik ukituko, falta, aldaketa edo hutsarteetan iza n ezik. Sakean arau hausteren bat eginez gero, jakinarazi egingo da eta ostean errepikatuko balitz, dagokion zigorra ezarriko zaio.

12. Saskiratze bakoitzak 2 puntu balio dute, 4 metroko lerrotik lorturiko saskiak izan ezik, hauek 3 puntukoak izango direlarik. Jaurtiketa libreek puntu 1eko balioa izango dute.

13. Partiduak 10 minutuko 4 zati izango ditu. Zatien arteko atsedenaldia, aparteko zatiak barne, minutu batekoa izango da,bigarrenean eta hirugarrenean izan ezik, zati hauetan 5 minutukoak izango direlarik. Partidu amaieran emaitza berdinketa bada, berdinketa apurtzeko behar beste zati jokatuko dira, 5 minutuko iraupena izango duelarik bakoitzak.

Denbora hurrengo kasuetan baino ez da gertauko:

a. Hutsartea

b. Jaurtiketa librea sortzen duen falta.

c. Baloiak joko zelaiaren mugak gainditzen baditu eta horri dagokion sakea ez berehala atera ezin dela argi dagoenean.

d. Jokalari baten aldaketa.

14. TALDEAK:

a. Talde batek ez baditu gutxieneko 4 kirolari aurkezten, partidua berdin berdin jokatuko da eta emaitza baliogarritzat emateko adostasuna dagoen ala ez adierazten duen txostena burutuko da (akta atzekaldean). Txosten hau partiduaren hasiera aurretik egingo da, eta bertan adierazitakoa errespetatu egin beharko da.

b. Akordiorik ezean, gutxieneko 4 kirolariak aurkezten ez dituen taldeak partidua irabaziko balu, emaitza 2-0ekoa izango litzateke, araua bete duenaren alde. Arau haustea burutzen duen taldeak partidua galduko balu, bertan ematen den emaitza ontzat emango da, gorabehera hori aktan adieraziz.

c. Taldeek beharrezko esfortzua egin behar dute, aktetan partiduan gertatudena adierazita gera dadin.

15. Emaitza zatika kontabilizatuko da. Zati bakoitzean gailentzen den taldeari bi puntu emango zaizkio. Berdinketa egonez gero, puntu bakarra jasoko du talde bakoitzak. Partidu amaieran, irabazi eta berdindutako zatien batuketa berdinketa bada, beharrezko luzapenak jokatuko dira, hauen irabazleari bi puntu emanez.

16. ERASO JOKALDIAREN HASIERA.-

a. Saskiratze bakoitzaren ondoren, baloiak jabetzatz aldatuko du eta jokoari zelai erdiko zirkuluerditik ekingo zaio.

b. Jaurtiketa gabeko falta pertsonala, biolazio edo kanpora joan ondoren, baloia hegaleko marra urbilenetik jarriko da jokoan.

c. Defentsa errebote edo errekuperazio bakoitzaren ondoren, baloiak eremutik irten beharko du berriz ere saskiratu ahal izateko, hau da, hankak eremutik kanpo dituen jokalari batek ukitu beharko du. Arau hau errespetatzen ez bada, ez da saskiratzea lortuko: EZ da saskiratzea aktan jasoko eta saskiratu duen taldearen biolaziotzat joko da eta talde aurkariari baloi jabetza emanez zigortuko zaio. JAURTIKETA EKINTZAN falta jasotzen bada, hau ez da horrela ulertuko, izan ere baloia eremutik irten gabeko jaurtiketa ekintza biolaziotzat ulertzen da, eta talde aurkariari baloi jabetza emanez zigortuko zaie.

d. Zelaiko jaurtiketa edo sartu gabeko jaurtiketa libre baten ondoren, erasoan dabilen taldeak baloia eremuaren barruan berreskuratzen badu, zesta bat egiten saiatu ahalko du, pilota eremutik kanpo atera gabe.

e. Baloia ez bada eremutik ateratzen eta erasoan dabilen taldearen jokaldian ez badago saskiratzetik, jokoak aurrera jarraituko du, jabetza nork duen kontuan artuko delarik eta jabetzak baloia aldatzen baduen, eremutik irten beharko da saskira berriz jaurti ahal izateko.

17. FALTAK.-

a. 5 falta personal burutu dituen jokalari batek partidua utzi beharko du berahala.

b. Talde bat BONUS egoeran egongo da laurdenean bost falta egin ondoren.

c. Falta pertsonalen zigorrak:

1. Falten BONUS (+5) egoeran aurkitzen ez den taldeak egindako falta, jaurtitzeko ez dagoen jokalari baten gainean: baloia falta jaso duen taldearentzat izango da.

2. Talde batek jaurtitzeko akzioan dagoen jokalari aurkari bati egindako falta, eta saskiratzea lortzen ez duenean, bi jaurtiketa libre.

3. Talde batek jaurtitzeko akzioan dagoen jokalari aurkari bati egindako falta, eta saskiratzea lortzen duenean, jaurtiketa libre.

4. Talde batek 3 puntuko lerrotik jaurtitzeko akzioan dagoen jokalari aurkari bati egindako falta, eta saskiratzea lortzen ez duenean, hiru jaurtiketa libre.

5. Falta pertsonala suposatzen duten jaurtiketa libreen kasu guztietan, jokoa errebo- tea lortzeko borrokarekin berekingo da.

6. Falta tekniko,kiroltasunik gabeko edo deskalifikatzaileean, zigorra jaurtiketa librea eta araua hautsi ez duen taldearentzako jabetza izango dira.

18. Kirolari guztiek jokoaren momenturen batean parte artu beharko dute eta gutxienez laurden oso bat jokatu gabe egon beharko dira aulkian.

19. Taldeek ordezkapen bat edo batzuk batera egin ahalko dituzte edozein laurdenetan. Baloia hilik egon beharko da eta eskola laguntzaileak eman beharko du baimena.

Mahaiko ofizialak baleude, hauek izango dira aldaketak behar den bezala egiten direla kontrolatuko dituztenak.

20. Talde bakoitzak, baloia hilik dagoenean, minutu bateko iraupeneko hutsarte bat eskatu ahalko du. Talde bakoitzak hutsarte bat izango du luzapen bakoitzean. Laurden batean erabili ez diren hutsarteak ezingo dira beste laurden batekoei gehitu.

21. Eremuko edozein defentsa ilegaltzat joko da eta burutzen duen taldeko entrenatzaileari falta taktiko batekin zigortuko zaio. Dena dela, arau-haustea adierazi aurretik, eskola laguntzaileak egoeraren berri emango dio talde arau-hausleari.

# Preminibasket ARAUTEGIA 3X3
# 3x3 eta 5x5 modalitateetan parte hartzen duten taldeentzat

1. 5x5 eran egiten den lehiaketaren zatia Minibasketeko arautegia jarraituz burutuko da.

2. 3x3 lehiaketa 3x3ko arautegi orokorrari jarraituz burutuko da, hurrengo kasuetan izan ezik.

a. Talde bakoitzak bi azpi-talde burutuko ditu (A1,A2 eta B1,B2). Azpi-talde bakoitzean gutxienez 4 partehartzaile izango dira eta partidu bakoitzean ezberdinak izan ahalko dira, lizentziak diferentziatu gabe daudelako.

b. Zelaian lau talde izango ditugu.

c. Lau partidu jokatuko dira, bi aldi berean jokatu ahalko direlarik, zelai erdi bakoitzean bat. Partiduen 1.multzoa A1-B1 eta A2-B2; Partiduen 2.multzoa A2-B1 eta A1-B2.

d. Partidu bakoitzaren iraupena 10 minutukoa izango da.

e. Parte hartzaile orok partiduaren uneren batean jokatu beharko du, bi partiduetako edozeinetan.

f. Irabazitako partida bakoitzagatik 2 puntu jasoko dira eta berdindutako partidu bakoitzagatik puntu bakarra.

g. Azken emaitza azpi-taldeek jasotako puntuen batuketatik lortuko da. Berdinketak balioko du, luzapena ez delarik jokatuko.

## ESKOLA LAGUNTZAILEAK

Saskibaloi Federazioak diseinatu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirol atalearen babestutako Eskola Laguntzaileak programak, partiduak arbitratzearen ardura duten kideak Eskola Kiroleko beste partehartzaile bat gehiago bezela integratzen du.

Eskola Laguntzaileak jokoaren garapenari lagundu behar dio, baina baita garapeneko lehendabiziko etapa hauetan, arautegien ulermenenari ere. Ematen diren erabakiak, era didaktikoan azaltzeak garrantzia handia du.

Kasurik gehienetan Eskola Laguntzaileak formakuntza garaian izaten dira, beraz gainontzeko partaideekiko ulermena eta laguntza behar izan dute.

## PARTIDUEN AKTAK

Partiduaren akta ofiziala Federazioak erraztua eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartua izango da. Original bat eta bvi kopia izango ditu.

Eskola Laguntzailea akten arduraduna izango da. Akta originala Bizkaiko Saskibaloi Federazioarentzat izango da, berau, partidua ospatu eta hurrengo bost egunen barruan Bizkaiko Saskibaloi Federaziora (Martín Barua Picaza 27, 48003 Bilbao). Lehen kopia talde irabazlearentzat izango da eta bigarren galtzailearentzat.

Emaitzaren jakinarazpena, maila,taldeen izena eta talde garailea argi eta garbi adieraziz, partiduaren bukaeran egin beharko da Federazioaren erantzungailu automatikora deituz telf.944 395 722. Jakinarazpen hau ezingo dapartidua ospatu eta hurrengo astelehenaren arratsaldeko 19:30ak baino beranduago egin.

## AKTAREN PRESTAKETA

Partidua hasi baino 20´ lehenago gutxienez, Eskola Laguntzaileak akta prestatuko du honako pauso hauek betez:

1. Aktaren goiburuan bi taldeen izena jarriko da. Lehen taldea etxekoa izango da. Zelai neutralean jokatzen diren partidu eta torneoen kasuetan programan lehendabizi ageri den taldea jarriko da lehendabizi. Lehen taldea “A” izango da eta bigarren taldea “B”.

2. Partidua Torneo baten parte denean, partiduaren zenbakia, tokia, data eta ordua adieraziko dira.

3. Partiduan partehartzen duten Eskola Laguntzaileen zenbakia adierazi beharko da.

4. “A” taldeko partehartzaileen izenak goikaldean inskribitu behar dira eta “B” taldekoenak behealdean. Lehendabiziko zutabean lizentziaren zenbakia(azken hiru zenbakiak) adieraziko dira; bigarren zutabean abizena eta izenaren inizialak maiuskulaz; hirugarrenean, jokalariaren zenbakia. Izenaren ostean (KAP) inskripzioa jarriko zaio taldeko kapitainari.

5. Talde bakoitzaren oinean, entrenatzaile, laguntzaile eta delegatuaren izenak idatziko dira.

6. Partidua hasi baino 10´ minutu aurretik, enternatzaileek beraien adostasuna emango dute, izena emandako izen eta zenbakien gainean, akta sinatuz eta adi berean izena emanda dutenetatik nortzuk jokatuko duten hasieratik adieraziz. Informazio hau erraztuko duen lehendabiziko taldea “A” taldea izango da. Eskola Laguntzaileak “X” txiki bat jarriko du laurden horretan parte hartzen duten kirolariei.

7. Haur eta Minibasket mailan, ordezkapen bat burutzen denean, ordezkatua izan den kirolariari dagokion “X”-ri zirkulu bat gehitu behar zaio eta era berean “X” bat jarriko zaio jokatzen sartuko den jokalariari.

8. Etxeko taldeak, mahaiko eskuinaldean kokatuta dagoen saskian sartu beharko du lehen zatian, beti ere aldatzeko adostasunik lortzen ez badute. Arauzko denbora bukatzean tanteoa berdinketan bukatzen bada, gainontzeko luzapen guztiak alde berdinean jokatuko dira.

9. Gertaera baten minutuan saskiratu behar den guztietan (hutsartea,falta, jokoan saskiratzea edo ajurtiketa librea, geratera jaso den minutua adieraziko da. Horrela, 0,15″-n gertatzen den gertaera, 1. Minutuan gertatu dela jasoko da; 3´47″-n gertatzen den gertaera bat 4. Minutuan jasoko dela adieraziko da.

10. ERREGISTRATUTAKO HUTSARTEA.- Erregistratutako hutsarte bakoitza, hutsartea eman izanaren dagokion koadritxoan inskribituz anotatuko da. Denbora erdi bakoitzaren edo luzapen bakoitzaren amaieran, erabili gabeko koadrotxoak bi marrekin gurutzatuko dira.

11. FALTAK.- Taldeko entrenatzaile,laguntzaile,ordezko eta jarraitzaileen faltak, falta taktikoak izango dira eta entrenatzaileari anotatuko zaizkio. Falta pertsonak, kiroltasunik gabeko edo taktikoak, burutu dituzten jokalariei anotatuko zaizkie.

Falten erregistroa honela burutuko da:

a. Jaurtiketa librearen penalizazoa suposatzen ez duen falta pertsona, falta burutu den denbora (minutua) adieraziz.

b. Jaurtiketa libre bat edo gehiagoz zigortzen den falta pertsonala, jaurtiketa horiekin azpi indize bat gehituz falta burutu den minutuari.

c. Talde bien aurkako faltak, larritasun berdina suposatzen duten zigorrak daudenean, gertaera jaso den minutuari “c” bat gehituz adieraziko dira.

d. Kiroltasunaren aurkako falta “U” batekin adieraziko da.

e. Deskalifikatzailea gertaera jaso den minutuari “D” bat gehituz adierazik da.

f. Falta teknikoa, gertaera jaso den minutuari "T" bat gehituz adierazi-ko da.

g. Kirolari bat edo batzuk partidutik deskalifikatuak izan badira eta taldeko aulkiaren eremua utzi behar badute, e) puntuko falta adie-razi onoren, faltak anotatzeko gorderiko espacio guztiek "D" jarriz beteko dira. Horrez gain, falta deskalifikatzaileak taldeko falta bezala anotatuko dira.

Zati bakoitzaren bukaeran marra lodi bat marraztuko da erabiliak izan diren eta erabili gabeak geratu diren koadrotxoen artean. Partidua-ren bukaeran, hutsik geratu diren koadrotxoak marra horizontal lodi batekin erabiliezin bihurtuko dira.

12. TALDEKO FALTAK.-Aktan, 4 espazio multzo egongo dira, laurden ezberdinetarako. Espazio bakoitza progresiboki gurutzatuko da, 1 zenbakitik 4 zenbakira, jokalariak faltak burutzen doazen ehinean. Laugarren falta burutzean azken espazioa erabiliko da, denboran anotatuz (minutua).

13. ARRASTATUTAKO TANTEOA.- Talde biek lorturiko tanteo arrastratuen laburpen kronologikoa eramango da. Partiduaren aktak 5 zutabe ditu tanteo arrastratuarentzat. Lehendabiziko 2 zutabeak Lehen Zatirako dira (1. Eta 2. Laurdenak) eta hurrengo 2 zutabeak Bigarren Zatirako dira (3. Eta 4. Zutabeak). Azken zutabea egon daitezkeen luzapenent-zako izango da.

14. Zutabe bakoitzat 5 espazio bertikal izango ditu. Erdiko espazioa itzalarekin izango da eta "M" batez adierazita, ekintza geratzen den minuturako gordeko delarik. Bi espazo bikiak, esker eta eskuinean, talde bientzat izango dira. Lehen espazioa, joko zelaitik saskia lortu duen edo jaurtiketa libre bat sartu (edo huts egin) duen kirolariaren zenbakiarentzat izango da. Bigarren espazioa arrastratutako tanteoarentzat izango da, talde bakoitzak lorturiko tanto kopurua

adierazteko, aurreko totalari lortutako tantoak gehituz.

Penalizazio berdinari dagokien jaurtiketa libreak paréntesis batekin batuko dira jokalariaren zenbakia eta arrastratutako tanteoaren arteko espazioan, kasu hauetan ez delarik jokalariaren zenbakia zertan jarri beharko. Sartu gabeko jaurtiketa librea marro labur horizontal batekin adieraziko da, dagokion koadrotxoan.

Anotazio bakarra egingo da espazio horizontal bakoitzean.

15. Anotatzerakoan hurrengo jarraibide osagarriak izan beharko dira kontuan:

a. 3 puntuko balioa duen tantoa aktan erregistratzeko, lortu duen jokalariaren zenbakia borobilduko da.

b. Talde bakoitzak baloia bere saskian sartzen duenean, talde aurkariko Kapitainak sartua izango balitz bezala erregistratuko da.

c. Baloia saskian sartu ez denean lortu diren puntuak, saskiratzen saiatu denak sartu izan balu bezala erregistratuko dira.

d. Denbora bakoitzaren bukaeran marra horizontal lodi bat marraztuko da azken anotazioaren azpian.

e. Bigarren zatiaren hasieran (eta luzapen baten hasieran) zutabean goiburuan (1. Espazio horizontala) aurreko laurdenean lorturiko tanteo osoa idatziko da.

f. Posiblea den kasuetan, zelaian dagoen markagailuari begiratuz, aktan ageri den arrastratutako tanteoa egiaztatuko da. Zalantzarik egonez gero, edo talderen batek eragozpenen bat jarriz gero, Eskola Laguntzaileak zalantza argituko du baloia hilik eta partiduko erlojua geldi dagoenean.

16. EMAITZA OSOA.- Laurden bakoitzaren amaieran, anotatzeko arduraduna den pertsonak, talde biek lorturiko tanteoa idatziko du, aktaren beheko partean kadu horretarako dagoen sekzioan. Era berean, luzpaena egongo balitz, luzapenen tanteoa ere anotatuko luke. Partiduaren amaieran azken tanteoa erregistratuko da, talde garailearen izena aktaren behekaldeko eskuinaldean jarriz.

Bukatzeko, akta egiteaz arduratu diren pertsonek akta sinatuko dute. Akta errepasatu eta gero, Eskola Laguntzailea sinatzen azkena izango da. Dagozkien kopiak talde partehartzaileei eman ostean, bukatutzat emango da partiduaren administrazioa.

17. SEINALEAK

A. Keinu oficial bakarrak jarraian ageri diren eskuzko keinuak izango dira.

B. Ofizialen mahaira seinalatzerako orduan, jakinarazpen hori ahoz ozen esatea gomendatzen da.

C. Anotatzaileen mahaiko kideek ere keinu hauek ezagutzea oso garrantzitsua da.

## Partiduko erlojuaren seinaleak

| ERLOJUA GELDITU | ERLOJUA FALTA BATENGATIK GELDITZEA | ERLOJUA MARTXAN JARTZEA |
|---|---|---|
|  |  |  |
| Eskua Zabalik | Ukabila itxita | Eskuarekin ebaki |

## Tanteoa

| PUNTU BAT | BI PUNTU | HIRU PUNTU |
|---|---|---|
|  |  |  |
| Atzamar bat,<br>eskumuturra jaitsi | Atzamar bi,<br>eskumuturra jaitsi | Hiru atzamar luzatuak<br>Esku bat: Saiakera<br>Bi esku : saskiratua |

## Aldaketak eta hutsartea

### ALDAKETA



Besoak gurutzatuta

### BAIMENA



Eskua zabalik,
gorputzera hurbiltzea

### HUTSARTEA



T forma,
hatz erakuslea erakustea

### KOMUNIKABIDEENTZAKO HUTSARTEA



Besoak zabalik
eta ukabilak itxita

## jakinarazpenak

### SASKIRATZEA BALIOGABETZEA, JOKOA BERTAN BEHERA UZTEA



besoak guraize eran mugitu, bular pareraino

### BEGI BISTAKO ZENBAKETA



esku-azpia mugitzen den bitartean zenbatzea

### KOMUNIKAZIOA



Hatz lodia gorantz

### JAURTIKETA ERLOJUPAREN BERRABIARAZTEA



Eskua biratzea,
hatz erakuslea luzaturik

### JOKOAREN EDOTA ALBOKO SAKEAREN NORABIDEA



Jokoaren norabidea
adierazi, besoa alboko
lerroarekiko paralelo

### ATXIKITUTAKO BALOIAREN EDO JAUZIAREN EGOERA



hatz lodiak gorantz,
txandakako jabetzaren
geziaren araberako
jokoaren norabidea seinalatu

## Arau hausteak

### LEGEZ KANPOKO AURRERA EGITEA




Ukabilak biraka ibiltzea

### LEGEZ KANPOKO DRIBLINA DRIBLIN BIKOITZA




Eskuekin txaloak egitea

### LEGEZ KANPOKO DRIBLINA BALOIA JARRAITZEA




Eskuarekin bira erdia egitea

### 3 SEGUNDU




Besoa luzatua, 3 atzamar erakustea

### 5 SEGUNDU




5 atzamar erakustea

### 8 SEGUNDU




8 atzamar erakustea

### 24 SEGUNDU




Lepoa atzamarrekin ukitzea

### ATZEKO PISTARA ITZULITAKO BALOIA




Besoa mugitzea gorputzaren aurrean

### GURARIZKO HANKA




Hanka seinalatzea

## Falta mota

### 00 eta 0 zkia



Esku biek 0 zenbakia erakusten dute

Esku batek 0 zenbakia erakusten du

### 1-5 zkia.



Eskumako eskuak 1tik 5erako zenbakia erakusten du

### 6-10 zkia.



Eskumako eskuak 5 zkia erakusten du, ezkerreko eskuak 1etik 5erako zenbakia erakusten du

### 11-15 zkia.



Eskumako eskuak ukabila itxita erakusten du, ezkerreko eskuak 1etik 5erako zenbakia erakusten du

### 16 zkia.



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 1 zkia. adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 6 zenbakia erakusten dute.

### 24 zkia.



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 2 zkia. adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 4 zenbakia erakusten dute.

**40 zkia.**



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 4 zkia adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 0 zkia. erakusten dute.

**62 zkia.**



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 6 zkia adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 2 zkia. erakusten dute.

**78 zkia.**



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 7 zkia. adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 8 zkia. erakusten dute.

**99 zkia.**



Lehendabizi esku-azpia arbitroaren alderantz duen eskuak hamarrekoari dagokion 9 zkia. adierazten du, ofizialen mahairantz zabalik dauden eskuek unitateari dagokion 9 zkia. erakusten dute.

## Falta mota

**HELTZEA**



Eskumuturra beherantz heldu

**BLOKEOA (DEFENTSAN) LEGEZ KANPOKO PANTAILA (ERASOAN)**



Esku biak aldaketan

**BALOIA IZAN GABE SAKATZEA EDO KARGATZEA**



Bultzada bat imitatu

**TAKTEOA**



Esku-azpia heldu eta aurrerantz desplazatu

**ESKUAK LEGEZ KANPO ERABILTZEA**



Eskumuturra kolpatzea

**BALOIAREKIN KARGATZEA**



Esku-azpi irekia ukabil itxiarekin kolpatzea

**ESKUAREN BAINEAN LEGEZ KANPOKO KONTAKTUA**



Esku-azpi irekia beste besaurrearen aurka kolpatzea

**UKONDOEN GEHIEGIZKO KULUNKA**



Ukondoa atzerantz kulunkatzea

**BURUAN KOLPEA**



Buruan kontaktua imitatzea

**TALDEAREN FALTA BALOIAREN KONTROLAREKIN**



Ukabil itxiarekin talde arau-hauslearen saskia seinalatzea

**JAURTIKETA EKINTZAN FALTA**




Ukabila itxita duen besoa, ondoren jaurtiketa libre kopurua adierazten

**JAURTIKETA EKINTZA GABEKO FALTA**




Ukabila itxita duen besoa, ondoren lurra seinalatzen

## Falta bereziak

### FALTA BIKOITZA



Esku bietako ukabil itxiak astindu

### FALTA TEKNIKOA



T forma, esku azpiak erakutsiz

### KIROLTASUNIK GABEKO FALTA



Eskumuturra goian dagoela heltzea

### KANPORATZEA DAKARREN FALTA



Esku bietako ukabil itxiak

## Zigorren kudeaketa

## Ofizialen mahaiei zuzenduriko seinaleak

### FALTA ONDOREN, JAURTIKETA LIBRERIK GABE



Jokoaren norabidea seinalatu, eskua alboko lerroarekiko paralelo

### BALOIAREN KONTROLAREKIN TALDEAREN FALTAREN ONDOREN



Ukabila itxita jokoaren norabidearen aldera, eskua alboko lerroarekiko paralelo

### JAURTIKETA LIBRE 1



Atzamar bat altxatzea

### JAURTIKETA LIBRE 2



Bi atzamar altxatzea

### 3 JAURTIKETA LIBRE



Hiru atzamar altxatzea

## Jaurtiketa libreen kudeaketa - Arbitro Aktiboa (Burua)

| JAURTIKETA LIBRE 1 | JAURTIKETA LIBRE 2 | 3 JAURTIKETA LIBRE |
|---|---|---|
|  |  |  |
| Hatzamar bat horizontalea | Hatzamar bi horizontalea | 3 Hatzamar horizontalea |

## Jaurtiketa libreen kudeaketa - Árbitro Pasiboa (Atzean eta erdian)

| JAURTIKETA LIBRE 1 | JAURTIKETA LIBRE 2 | 3 JAURTIKETA LIBRE |
|---|---|---|
|  |  |  |
| Hatz erakuslea | Esku bietan atzamarrak batera | Esku bietan 3 atzamar luzaturik |

# JOKATZEKO ZELAIAK

**1. SASKIBALOIA** Jokatzeko zelaia gainazal lau,errektangeluarra eta oztopo gabekoa izango da. Mugatze marren barruko ertzetik 28 metroko luzera bider 15 metroko zabalera izango du. Hala ere, federazioak hurrengo mugen barruan dauden joko zelaiei oniritzia emateko baimena dauka: 4 metro gutxiagoko luzera eta 2 metro gutxiagoko zabalera, beti ere bariazioak proportzionalak diren kasuetan.
Marra guztiek 0,05metroko zabalera izango dute.
**Teilatua** 7 metroko gutxieneko altuerara egon beharko da eta argiztapena kirolari parte-hartzaileen ikuskapena oztopatzen ez duen toki batean.




**MURRIZTUTAKO AREA: ARAUDIEN NEURRIAK**
Marra guztiek 5 zentimetroko zabalera izan behar dute



**Taulak** zuzen muntatu beharko dira, lurrarekiko plano perpendikular batean, eta joko zelaiaren saskiko marrarekiko paralelo. Beraien erdiko puntuak, joko zelaiko puntuekiko perpendikularki eraikiak egongo dira, saskiko marra bakoitzaren erdiko puntutik 1,20 metrora.

## SAKIETARAKO ARAUDIEN EUSKARRIA




## TAULAREN ARAUDIAREN MARKAKETA



**Saskiak** uztai eta sarez osoturik egongo dira. Uztaiak burdin trinkoz osoturik egongo dira, 45 zentimetroko diametroa izango dutelarik. Uztaien metalak gutxienez 17 mm. eta gehienez 20 mm. izango ditu. Beheko ertzean gantxo edo antzeko zerbait izan ahalko dute, sarea eskegitzeko. Uztaia taulari loturik egon beharko da, lurretik 3,05 metrora, plano horizontalean eta taularen ertz bertikalekiko distantziakide. Taulen aurpegien eta uztailen beheko ertzaren arteko distantzia hurbilena 15 zentimetrokoa izango da.

**Sareak** kordoi zurikoak izango dira, uztaietatik zintzilikatuko dira eta baloia saskitik pasatzean aldi batean geldirik gera daitezen eratuta egongo dira. 40 zentimetroko luzera izango dute.

### AROAREN ARAUDIAREN NEURRIAK



**2. MINIBASKET** Jokatzeko zelaia gainazal lau errektangeluarra eta oztopo gabekoa izango da. Mugatze marren barruko ertzetik 28 metroko luzera bider 15 metroko zabalera izango du. Hala ere, federazioak hurrengo mugen barruan dauden joko zelaiei oniritzia emateko baimena dauka: 4 metro gutxiagoko luzera eta 2 metro gutxiagoko zabalera, beti ere bariazioak proportzionalak diren kasuetan. (28x15; 26x14; 24x13).

Marra guztiek 0,05metroko zabalera izango dute eta teilatua 7 metroko gutxieneko altuerara egon beharko da. Argiztapena kirolari parte-hartzaileen ikuskapena oztopatzen ez duen toki batean kokatuko da.



**Taulak** zuzen muntatu beharko dira, lurrarekiko plana perpendikular batean, eta joko zelaiaren saskiko marrarekiko paralelo. Beraien erdiko puntuak, joko zelaiko puntuekiko perpendikularki eraikiak egongo dira, saskiko marra bakoitzaren erdiko puntutik 0,80 metrora.







**Saskiak** uztai eta sarez osoturik egongo dira. Zesto bakoitza 2,60 metroko altueran kokatuko da.